

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko urtarrilaren 5etik 11rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/01/09

- Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 3koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Contact Center sektorearen Estatu mailako hitzarmen kolektiboaren alorreko epaiak betetzeari buruzko akordioaren akta. **2019-237 xedapena - 4 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/01/07

- **OGASUN MINISTERIOA. - Tributuak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2018ko abenduaren 21ekoa, Zerga Administrazioako Espainiako Agentziako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez luzatzen den autolikidazioa zuzentzeko eskaerak telematikoki aurkezteko gizarte-lankidetzaz, eta onesten den hirugarrenen izenean dokumentuak telematikoki aurkeztu ahal izateko ordezkartza egiaztatzeko dokumentu normalizatua. **189 xedapena - 5 or.**

2019/01/08

- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. - Medikamentu homeopatikoak.** - Ebazpena, 2018ko abenduaren 21ekoa, Medikamentuen eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentziarena, zeinaren bitartez eguneratzen den 2018ko urriaren 29ko Ebazpeneko I. eranskina. Ebazpen horren bidez ezartzen da urriaren 11ko 1345/2007 Errege Dekretura egokitzeko asmoa komunikatu den medikamentu homeopatikoaren zerrenda, finkatzen da komertzializazio baimena aurkezteko egutegia, eta agintzen da medikamentu homeopatiko batzuk merkatutik erretiratzeko. **2019-230 xedapena - 92 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/01/10

- **OGASUN ETA EKONOMIA SAILA**

- 191/2018 DEKRETUA, abenduaren 26koa, zeinaren bidez 23.990 euroko kredituak sartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2018ko aurrekontuan, errepideen arloan (AP-1 autobidea, Burgos-Armiñon) Estatutik eskumen eta/edo zerbitzu berriak jaso direla-eta. **109 xedapena - 3 or.**

- 192/2018 DEKRETUA, abenduaren 26koa, zeinaren bidez 6.430 euroko kredituak sartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2018ko aurrekontuan, trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan (Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineak) Estatutik eskumen eta/edo zerbitzu berriak jaso direla-eta. **110 xedapena - 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/01/09

- **ZUZENDARIEN EBAZPENAK.** - Ogasun zuzendariaren abenduaren 26ko 2609/2018 Ebazpena, onartu egiten dituen ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarrien baldintza teknikoak eta diseinua; hain zuzen ere, balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpen-likidazioei dagozkien paperezko ereduak (390 eta 303) ordezkatzeko balio duten euskarrien baldintza teknikoak eta diseinua. **2019-004 xedapena - 15 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/01/07

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA**

- Ogasu eta Finantzen foru diputatuaren 3 /2019 FORU AGINDUA, urtarrilaren 2koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 11ko 2190/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru-agindu horren bidez, lanaren etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren 190 eredua onesten da. **4 xedapena - 1 or.**
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren abenduaren 21eko 2131/2018 FORU AGINDUA. Honen bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ez-aldizkako autolikidaziorako 309 eredua eta haren izapidetze elektronikoa onesten dira. **1224 xedapena - 8 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

**MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO**